

GIL 76 Gaviota gas naturaleko hobia



Gaviota plataforma. Argazkia: 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Ireka-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola Arrazola'.

Kokapena

- **UTM koordenatuak:**

X: 523.968,00 m

Y: 4.816.101,00 m



Nola iritsi

Helikopteroz baino ezin da iritsi. Matxitxako lurmuturretik ere ikus daiteke plataforma; hurbilena dagoen lehorreko puntua da (8 kilometrora dago).

GILaren deskribapen laburra

Gasa erazteko lehengo itsas plataforma bat da Gaviota hobia, eta, gaur egun, lur azpiko gas-biltegi gisa erabiltzen da. Plataforma itsasoan ainguratuta dago 20 piloterekin, eta lehorrean dagoen tratamendu-instalazio batekin konektatua dago gasbide baten bidez. EAEko gas naturaleko ustiategi bakarra da.

Goi Kretazeoko kareharri zartatuz osatuta dago hobi zahar hau, eta 64 km²-ko azalera hartzen du, 2.150 m-ko sakoneran. Permiko-Triasikoko materialen gainean edo are zuzenean Paleozoikoko materialen gainean daude kareharriak.

Gas-eremua 1980an aurkitu zen, Bizkaia B-1 zundaketaren bidez. Erreserbak 12.000 milioi metro kubiko gasetan ebaluatu ziren, eta 1986an jarri zen martxan. Egunean 4-6 milioi m³-ko produkzioak izatera heldu zen. Gasa plataformatik ateratzen zen, hiru garapen-putzuren bidez. Plataforma 105 metroko ur-geruza baten gainean dago. Handik, Matxitzako lurmuturreko tratamendu-instalaziora garraiatzen zen gasa, non gasbide-sarearekin konektatzen baitzen.

1994an, Gaviota lur azpiko gas-biltegi gisa hasi zen lanean. Gaur egun, hobiaren biltegitatze-gaitasuna handitzen ari dira; 1.600 milioi m³ gas erabilgarri gordetzeko gaitasuna izango du, gaur egungoaren bikoitza.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Behatzeko puntu irisgarri onena

Bermeo.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 88, GIL 105, GIL 95, GIL 22, GIL 134, GIL 98, GIL 92, GIL 14, GIL 100, GIL 104.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 150.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				●
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean ●	Potentziala	Martxan ●
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Mendia et. al. *Guía de lugares de interés geológico de Urdaibai*. Eusko Jaurlaritz. 2012.